


MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ALDEKO HIRITARREN ITUNA VITORIA-GASTEIZ



2007ko APIRILA

sarrera	1
justifikazioa	2
mugikortasun iraunkorra	3
Itunaren printzipio orokorrak	4
helburuak eta neurriak	7
parte hartzeko prozesua	13

sarrera

Mugikortasun terminoa pertsona eta merkantzien mugimenduarekin dago lotua. Pertsona eta ondasunen irisgarritasun eta mugitzeko askatasuna gure gizartearen funtsezko eskubideetako bat da eta, aldi berean, funtsezko elementuetako bat gure udalerraren garapen sozio-ekonomikoa egia izan dadin. Hiri-garraioa konpontzea erabakigarria izango da hiritarra osasuntsu bizi dadin, hiriak ondo funtziona dezan, bizi kalitate orokorra hobetzeko eta ingurugiroa errespetatzeko.

Etengabe handituz etorri den mugikortasunaren inpaktuak ikusirik, kasuan kasuko konponbideak —hiri-erdia oinezkoentzat bakarrik gordetzea, bidegorriak eta hiri barneko sendak taxutzea, hiri zonetan TAO bitartez aparkalekua arautzea, bizikletak maileguan uztea eta ferrokarrila hiri-bilbean txertatzea, besteak beste— diseinatu eta praktikan jartzean Gasteiz aitzindari izan bada ere, aspaldion lekualdaketen kopurua dezente handitu da hiri honetan eta auto pribatuaren erabilera indiskriminatua larregi hazi da.

Hiriaren hazkunde-etapa garrantzitsu honetan, hiri osoaren egituraren eta irisgarritasunean eragin bizia izango duen eskala-aldaketa gertatzeaz, mugikortasun politika goitik behera birplanteatu beharra dago hainbat alderdi aintzat harturik, hala nola lekualdatzeko moduak, horien arteko elkargarritasuna eta, iraunkortasunetik mugikortasun politika bideratzeko xedez praktikan jarriko diren neurriak eta lehentasunak... hori dena hiritarren eta ingurugiroaren alde jardunez, hala zor baitzaio udalerrri honen izaerari.

Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Itun honetan parte hartzen dugun pertsona eta erakundeok, etengabe areagotzen ari den mugikortasun-eskaeraren ondoriozko jasanezintasun-prozesua behin betikoz mugatzea deliberatu dugu. Agiri hau sinatzen dugunon iritziz, hiri-mugikortasunari beste ikuspegi batetik egin behar zaio aurre: batetik, automobil pribatua gutxiago erabiliz; bestetik, premiazkoa da baliabide gutxiago kontsumituko dituzten eta kutsadura gutxiago eta lurzoru-xahuketa urriagoa eragingo duten garraiobideak sustatzea.

Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Itun honen xedea mugikortasuna bestela arautzeko markoa eta, horrenbestez, bestelako hiri eredua definitzea da: hiri berri horretan lekualdatzeak ez du arrisku edo mehatxurik ekarriko osasun, bizi kalitate, ingurugiro edo bertako ekonomiaren garapenarentzat.

justifikazioa

Mugikortasuna dela eta, Gasteizen praktikan jarritako neurri batzuk gorabehera, ibilgailu pribatuan egiten diren bidaiak ugaltu direla egiaztatu da, garraio publikoaren eta oinezko lekualdaketen kaltetan. Hortaz, pertsona eta merkantzien mugikortasun motorizatuari eta irtenbide pribatuen bidez konpontzeko prozesuari muga ezartzea premia kotzat jotzen da orain.

Hori erdiesteko, ordea, hiri-mugikortasunaren hainbat alderdiri dagozkion printzipio orokor batzuk eta, horrekin batera, hartu beharreko neurri zehatzak orientatuko dituzten helburuak definitzeko akordiora heldu beharra dago; era berean, horretan esku hartzeko, jarraipena egiteko eta emaitzak balioztatzeko aukera eman behar zaio hiritarrari.

Mugikortasuna motorizatzearekin eta ibilgailu pribatuekin lotzeak makina bat arazo sortu ohi ditu, hiritarraren ondoeza sortaraziz; hona, besteak beste:

- Populazioaren —batez ere, hiritar ahulenen (haurrak, edadetuak, ezinduak)— osasun-arazoak: trafikoak sortarazitako gaixotasunak, dela zuzenki (istripuak), dela zeharka (kutsadura atmosferikoa eta zarata), sedentarismoa, etab.
- Ingurugiro alorreko arazoak: lurraldea okupatu eta zatikatzea, negutegi efektudun gasen igorpena, zarata, berrizta ezin daitezkeen baliabideen kontsumoa.
- Arazo sozialak: auzo lagunen elkarbizitza espazio publikoan endekatzea, haur, edadetu eta ezindu edo elbarrituen autonomia eta sozializazio eskasa, ibilgailurik ez daukaten taldeen denbora alferrik galtzea, trafiko mantsoegiaren edo irisgarritasunik ezaren ondorioz.
- Arazo ekonomikoak: garraio sistemetan gastua areagotzea, trafiko-kongestioaren ondoriozko kosteak direla medio, lehiakortasunik ez izatea, etab.

Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Ituna elkargune edo topaleku gisakoa da, beraz: hortik abiatu finkatuko dugu geure mugikortasun eredu berria. Itun honen testuaren jomuga, beraz, Administrazioetik eta gizarte zibilaren ordezkari eta elkarteetatik egin daitezkeen ekarpenak adostea da, epe labur eta ertainera begira, eta etorkizuneko belaunaldientzat batik bat, nolako mugikortasun-eredu eta nolako hiria nahi ditugun definitzeko.

Adostasun horretan oin harturik, printzipio eta helburu komunak aplikatzea nahi dugu, lehendabizi, hiriaren garapen sozial eta ekonomiko zuzena erdiestea errazagoa izan dadin, Gasteizko udalerriko jasangarritasun eta ingurugiroaren egoeraz eginiko diagnostiko orokorrean mugikortasunaren sektoreko txostenean atzeman diren akats eta gabeziak gaituz.

Itun honetan adierazitako akordioak garatu eta gorpuzteko eremua, berriz, Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren Plana izango da.

mugikortasun iraunkorra

Mugikortasun iraunkorra, egungo irisgarritasun- eta mugikortasun-joerak ez bezala, honela definitzen da:

- Populazioaren osasunarentzat arrisku apalagoa izango duen mugikortasuna.
- Ingurugiroan kalte apalagoa eragingo duen mugikortasuna, berrizta daitezkeen eta ezin berrizta daitezkeen natur baliabideen kontsumo txikiago egingo duena.
- Mugikortasun zuzenagoa, bidezkoagoa, hiritar ororen premiei erantzun ahal izango diena, gizakien adin, sexu, errenta, egoera fisiko edo psikikoa zeinahi dela ere.
- Ikuspegi ekonomikotik, eraginkorragoa izango dena.
- Hiri-bilbean hobeki txertaturiko mugikortasuna, haren ezaugarriak ezabatuko ez dituena.

Etorkizunean Gasteizi aplika dakizkiokeen neurriak orientatzeko hainbat printzipio orokor definitu dira, mugikortasun jasangarrirako bidean pausoak emateko.

- **HIRI-EREDUA**

Kalitate oneko hiri-espazioa eta hiri osasuntsua osatzea, zarata eta kutsadura dezente urriagoak izango dituen, espazio publikoaren kalitatearen mesedetan. Hiri horrek bidezkoa duen giza eskalari eta trinkotasunari eustea. Auzoak hobetzea, den-denek zerbitzuak eta giroa izan ditzaten, erdigunearen erakarpina orekatzeko.

Hiri-espazioa eta bertan gauzatzen diren jarduerak hobetzea, bilbe trinkoa, dibertsoa eta orekatua osatuz, gertutasuna eta erabileren aniztasuna ezaugarri bereizgarriak izan ditzan. Hiriaren garapena inguruko lurraldearenaren arabera antolatu eta koordinatzea.

- **IRISGARRITASUNA**

Hiritar orok espazio publikora iristea eskuragarri izan behar duela hartu beharko du mugikortasun-eredu horrek aintzat; eskubide unibertsal hori denei —mugikortasun mugatuko pertsoneri, zaharrei eta haurrei, bereziki— bermatu beharrekoak zaizkien neurriak hartuko dira. Mugikortasun-ereduak, era berean, kohesio soziala bermatzen lagundu behar du.

Udalerriko auzo eta herri guztietara ahalik eta baldintza hobereenetan iristea bermatuko duen sarea aurreikusi behar du ereduak, kasuan kasuko irisgarritasun-gabeziak eragiten (eta lurraldeen arteko desberdintasunak sortarazten) dituzten azpiegitura-hornikuntzen arazoak gaindituz.

- **ERAGINKORTASUNA**

Ereduak kontuan izan beharko ditu garraiobide bakoitzaren nolakotasunak, mugikortasunaren ahulgune eta alderdi sendoak (erabileraren ondoriozko inpaktu eta aukerak, beraz), lekualdatze jakin bakoitzean haietako bakoitzak eskaintzen dituen eraginkortasun operatibo eta energetikoei dagokienez. Horrenbestez, eredu horrek garraiobideen erabilera arrazionalizatu eta lekualdatze egokienetan garraiobide horietan balia daitezkeen sustatu beharko du.

- **OINEZKO ETA MOTORRIK GABEKO LEKUALDATZEAK BULTZATZEA ETA HIRITARRA AUTOMABIL PRIBATUA EZ ERABILTZEKO KONBENTZITZEA**

Oinez edo motorrik gabeko garraiobideen bitartez lekualdatzen diren hiritarrei hiri osoan barrena segurtasun eta erraztasunez ibiltzeko sarea eskaini behar die Gasteizek. Bizikleta ohiko garraiobide atsegina eta segurua bihurtzea, garraiobiderik ekologikoenak eta unibertsalenak sustatu eta lehenestea da erronka.

Europar Batzordearen "Hiritarren sarea" Liburu Berdeak (COM [95] 601, atzenean) dioenez, automobilaz bestelako garraiobideak sustatuz hiri-trafikoaren erronkei aurre egiteko neurriak hartzea premiazkoa dela egiaztatu da baina hori bakarrik ez da aski; horrez gainera, automobil pribatua zentzugabe eta modu indiskriminatuan balia ez dadin neurriak ere aplikatu behar dira: horiexei deritze egun sustatzeko eta ideiaz aldatzeko (*push and pull*) politika konbinatuak.

- **IBILGAILU MOTORDUNEN TRAFIKOA BARETzea**

Ibilgailu motordunen trafikoa lasaitu beharra dago, garraiobide horiek erabiltzea eta hiriarentzat eta hiritarrentzat egokiagoak diren lekualdatzeak elkargarri bihurtzea posible izan dadin moduz eta, bide batez, trafikoaren era guztietako eragin kaltegarriak urri daitezten.

Laburbilduz, garatu beharreko neurrietan egungo lehenetasunen hierarkia aldatzea, garraiobide guztien arrazionalizazioa eta adimenezko erabilera erraztuz, bakoitza dagokion egokiera hobereanean baliatzeko. Honela zehatz dezakegu hori:

- Motorrik gabeko garraiobide mantsoei lehenetasuna ematea, gizarte eta ingurugiroaren ikuspegitik bestelakoak baino onuragarriagoak izateaz gainera, egokienak direlako distantzia labur eta ertainetan.
- Gainerako ibilbideetan garraiobide pribatuen gainetik kolektiboak lehenestea.
- Trafikoa baretzea: hiri espazioan ibilgailuaren abiadura eta sarrera murriztea.
- Espazio eta ekipamendu publikoen sarea, elkarbizitzaz, aisialdiaz eta hiriaz gozatzeko gune egokiak diren aldetik diseinatzea. Lehendabizi, Gasteizen bizi izatea; ondoren, Gasteizen barrena ibiltzea.

- **GARRAIO PUBLIKOA AUTO PRIBATUAREN AURKAKO AUKERA**

Garraio publiko eta kolektiboaren eskaintza eta eraginkortasuna hobetu behar dira, hiri barruko lekualdatzeetan ez ezik ibilbide luze eta ertainetan ere (udalerrri eta eskualdean, adibidez) automobil pribatuaren egiazko alternatiba bihur dadin.

- **SEGURTASUNA**

Espazio publikoan seguru eta babesturik ibiltzeko bermea izan dezaten denek, ahulenek osaturiko kolektiboek batik bat, lekualdatze denetan bide-segurtasuna izateko bermea, oinezkoak, ziklistak eta motorrik gabeko gainerako garraio bideak bereziki artatuz.

Udal agintearen printzipioa oinezkoaren edo herritarren ikuspuntutik, horixe izango baita bide-diziplinaren berme-emailea, hots, mugikortasuna zuzen gara dadin, elkarbizitzarako oinarrizkoak diren arauak beteko eta betearaziko dituen.

- **DINAMISMO EKONOMIKOAREN BERMEA**

Gasteizko dinamismo ekonomikoaren mesedetan jardutea, alegia. Horretarako, bertako kaleen erakarpn komertzialari eusteaz gainera, merkataritza suspertzea, zerbitzuak garatzea eta turismoaren erakarpnaren areagotzea espazio publikoaren berreskurapenarekin uztartu beharra dago.

- **IKUSPEGI GLOBALA**

Mugikortasunaren aldeko apustuari osotasunez eta era integratuan heldu behar zaio, elkarren kontrakoak izan daitezkeen neurri partzial eta ikuspegi sektorialak gaindituta.

- **LIDERGOA**

Prozesu honetan funtsezkoa da lidergoa eta bermea agintari politikoek agertzea, hiriaren taxueran kontu hau epe ertain eta luzerako adostu beharra baitago.

- **OINEZKO LEKUALDATZEAK**

Oinezkoari espazio publiko handiagoa eta kalitate hobekoa eskaintzea.

Oinezkoentzako ibilbideen sare funtzional, seguru eta irisgarria sortu eta espaloietan jarraipena ematea; zona berdeetan eta merkataritza jarduera-areetan oinarrituko den sare hori oinezkoentzako area eta lehentasun alderantzikatuko zonek osatuko dute eta auzoak elkarrekin lotuko ditu.

Espaloietan eragozpenik gabeko gutxieneko zabalera mugatzea.

Gurpil-aulkian mugitzen diren mugikortasun murrizteko pertsonentzako egokiak eta eroak diren zoladura motak erabiltzea.

- **BIZIKLETA, PATINA ETA MOTORRIK GABEKO GARRAIOBIDEAK**

Garraio bide denetan, bizikleta, patina eta motorrik gabeko garraio bideen garrantzia areagotzea, horretarako azpiegitura, trafiko kudeaketa, bide-hezkuntza alorreko neurriak hartuz eta garraio bide horien sustapena eginez.

Gabeziak konpondu eta egun baliagarri dauden bidegorri-tarteak osatzea, egiazko bidegorrien sarea definitzeko.

Bizikletak uzteko tokien multzo zabal eta operatiboa ekipatzea, garraio bide horiek segurtasun-baldintza egokietan utz ahal izan daitezen.

Bizikleten mailegu zerbitzuarekin jarraitzea.

- **GARRAIO KOLEKTIBOA**

Garraio kolektiboaren erabilera sustatu eta hiritarra automobil pribatua balia ez dezan konbentzitzen saiatzea, garraio publikoko sistema lehiakor eta kalitadeduna eskainiz.

Zerbitzuaren abiadura komertziala, fidagarritasuna eta erregularitasuna areagotzea, beharrezkoa balitz bide publikoan garraio kolektiboarentzat espazio bat (bus karrila) bereiziz eta semaforoak autobusei eta tranbiei lehentasuna eman diezaieten moduan antolatuz.

Udalerriko auzo eta industrialdeen arteko garraio publiko edota kolektiboaren bidez ahalik eta estaldura eta lotura egokienak erdiestea. Zerbitzuaren maiztasuna eta ordutegia hobetzea, baita gaueko aisialdia errazteko ere.

Populazio-dentsitate apaleko areetan (bizitoki bakandu edo urbanizazioetako auzotegietan) eskatu beharreko garraio bidearen (taxi-busaren) erabilera sustatzea.

Ibilgailu guztiak mugikortasun urriko pertsonentzat egokitua egon daitezen bermatzea; horretarako, zoru baxuarekin hornitu beharko dira eta haur orgekin bidaiatzen duten familien premietara egokitu beharko dira.

Eraginkortasun energetiko hoberekin eta kutsagarri gutxiago igorriko duten motorra baliatuko dute ibilgailuek.

Garraio kolektiboan, bideen arteko elkargarritasuna bermatzea, ibilgailu pribatuen eta motorrik gabeko garraiobideen bitartez. TUVISA-ko autobus eta tranbiaren arteko elkargarritasuna eta koordinazioa bereziki artatzea.

Ibilgailu pribatuaren menpekotasunik ondorioztatuko ez duten konponbideen eskizak, ordutegi desberdinak dituzten jardura eta profesionalentzako garraio kolektiboak eman ditzaketen bestelako aukerak bilatzea.

Garraio kolektibo pribatua (enpresako edo eskolako garraioa) sustatu eta suspertzea, aspaldi honetan protagonismorik galdu egin baitu.

- **AUTOMOBIL PRIBATUA**

Automobilaren zentzuzko erabilera sustatzea, bestelako garraiobide iraunkorrago batzuk erabili ahal izateko aukerari ateak zabalduko dizkioten neurriak aplikatuz.

Bidesare hierarkizatua diseinatzea, bide horietako bakoitzak inguruneari egokituriko zirkulazio-intentsitatea eta abiadura onargarria ager ditzan beharrezkoak diren baldintzak sortuz eta trafikoa eraldatzeko politikak aplikatuz.

Bide-espazioen banaketa eta funtzioak errentagarritasun sozialeko irizpideen arabera definitzea.

Energia alternatiboen bidez mugitzen diren, gutxien kutsatzen duten edo ingurunearentzat tradizionalak bezain erasokorrak ez diren erregai berriak kontsumitzen dituzten ibilgailuen aldeko neurri fiskalak hartu eta aplikatzea.

Automobil pribatuaren erabilera arrazionalizatzeko politikak (*car-sharing*, ibilgailuen alogera eta bestelakoak, adibidez) sustatzeaz gainera, hiri barneko lekualdatzeak egiteko ibilgailu pribatu gisa taxia erabil dadin bultzatzea.

Pasabideko hiri-trafikoa eta auzoetako barne-trafikoa bereiztea politika jakin batzuk aplikatuz: "trafiko-baretzea", esate baterako, hiri gehientsuan eta toki-erakunde txikietan. Hiri-espazioan 10, 20 eta 30 motako zonak taxu daitezen sustatzea.

Hiri barruan intentsitate biziko trafikodun bideen rola ostera planteatzea, hiriaren funtzionamendua bereizi, zatikatu edo endeka ez dezaten zer egin behar den aztertuz gero.

• APARKATZEA

Aparkatzeko hiriko eskaintza eta hurrengo alderdiok elkargarri bihurtzea:

- Errotazio eta bertako biztanleentzako plaza-eskakizuna.
- Hiria dinamisismo eta bizitasun ekonomikoa.
- Modurik jasagarrienerako irisgarritasun eta mugikortasun baldintza egokiak.

Hiri-erdialdea errotazio-aparkamenduaren aukeraz hornitzea, horri esker hurrengoak posible izan daitezten:

- Ibilgailu pribatua hiri-erdialderaino iristea arautzea, ibilgailu pribatuaren hiri-erabilera erregulatzeke aparkaleku-plazaren eskaintzaz baliatuz.
- Hirian egokiro banaturiko lurpeko aparkalekuak ezartzea, horrek trafikoaren erakarpina eta kongestioa bazter ditzan eta, aldi berean, egun garraio bide jasagarrientzako aparkaleku izatekoa den lur gaineko zoruari toki zabalagoa izan dadin. Ibilgailu pribatua galtzadan utzi ordez, lurpean aparka dadin sustatzea.
- Zona urdina iraupen labur-laburreko aparkatzeko beharretara ere egokitzea.
- Auzotegiak auzo-lagunentzako adinako lurpeko aparkalekuz hornitzea, lur gaineko espazio publikoa bestelako erabilera sozial eta iraunkoragoak gauzatzeko libereago uzteko.
- Motozikleta eta bizikleten aparkamendua antolatzea, hirian behar adina plaza antolatuz.

• MERKANTZIEN HIRI-BANAKETA

Establezimenduen artean partekatutako merkantzi banaketa sustatzea, banatze-lanen inpaktua arintzeko eta karga arinago eta kutsadura urriagoko ibilgailuen erabilera areagotzeko.

Merkantzien garraioa bestela definitzea, jardura horretan diharduten eragileekiko (banatzaileak, merkataria, kontsumitzaileak) elkarrizketa eta adostasunerako espazioak sortuz.

• GARRAIOBIDEEN ARTEKO ELKARGARRITASUNA

Garraio bide guztien arteko elkargarritasuna sustatzea, lekualdatze-kateko tarte bakoitzean garraio bide eraginkorra erabili ahal izan dadin.

Zerbitzuaren kalitate onari eutsiz, hiri barneko eta hiri arteko zerbitzuen artean garraio publiko integratuaren sistema taxutzea, bai zerbitzuen ikuspegitik (ordutegiaren eta geldialdiaren koordinazioa) bai tarifaren ikuspuntutik ere.

TUVISA eta EUSKOTRAN-en arteko elkarlan ekonomiko, tekniko eta administratiboa antolatuko duen Garraio Kontsortzioa era dadin aurreikustea, Gasteizko udalerrian garraio publikoaren zerbitzuan dagozkien eskuduntzak modu koordinatuan bete ditzan.

Garraio bide publikoetan bizikletak, patinatzaileak eta bestelako garraio bide motor gabekoak eraman daitezkeen aukera ematea.

Etorkizuneko garraiobide anitzeko geltokitik gertu garraiobidez aldatzeko aparkalekuen eraikuntza sustatzea (behar bezala urbanizatu eta zaindutako disuasio-aparkalekuak edo periferikoak antolatuz).

Bizikletaduna eta oinezkoa elkarren ondoan ibil daitezen neurriak hartzea, bi gurpileko ibilgailuei betearaziko zaizkien abiadura-baldintzak mugatuz.

Garraio publikoaren geltokiak, behintzat erabilienak, bizikletentzako aparkalekuz hornitzea, eta, ahal den neurrian, geltokiotan bizikleten mailegu puntuak sortzea.

- **BIDEKO SEGURTASUNA**

Bideko segurtasuna hobetzea, istripuak murriztuz eta garraiobide bakoitzarentzako espazio publikoa definituz, abiadura handiko bideetan.

Egungo gune beltzak suntsitzeko beharrekoak diren egintzak praktikan jartzea, bideko istripu-indizeak jaisteko.

Bide publikoaren erabiltzaile denen espaziorako errespetua eta segurtasuna bermatzeko prebentzio-neurriak sustatzea, haur, edadetu eta ezindu edo elbarrituak bereziki artatuz.

- **KUTSADURA ATMOSFERIKOA ETA ZARATA**

Negutegi efektuko gasen eta bestelako kutsagarrien emisioa murrizteko neurriak har daitezen bultzatzea, igorpen handiko ibilgailuak fiskalitate aldetik ez lagunduz.

Ingurugiroarentzat ohikoak bezain erasokorrak ez diren erregaien erabilera sustatzea.

Zarataren aurkako lurzoruen erabilera sustatzea.

Ibilgailu guztien ihes-tutuen funtzionamendua kontrolatzea, motozikletetakoez bereziki arduratuz.

- **ARAUTEGIA**

Udal Ordenantzak Itun honetan adierazitako printzipioen arabera berrikustea.

Itun honetan finkaturiko printzipio eta helburuak betearazteko beharrezkoak diren bitartekoak agintariaren eskuetan utziko dituen lege arautegi egokia osatzea.

Oinezkoen, ziklisten eta garraio kolektiboaren erabiltzaileen mugikortasuna eragozten edo galarazten duten lege-hausteez bereziki arduratzea.

Bizikletaren antzeko garraiobide den aldetik, patinen erabilera baimentzea.

- **TEKNOLOGIA**

Egun dauden aurrerakuntza teknologikoez baliatzea mugikortasun-sistema eta trafikoaren kontrola hobetzeko, Itunaren oinarri diren helburuen arabera.

Trafikoa eta aparkamendua kudeatzeko sistemak praktikan ezarri eta hiri osoan zabaltzea.

Eskakizunaren arabeko garraio-kudeaketa sistemak edota automobilaren erabilera optimizatzeko bestelako moduak (*car-sharing*, ibilgailuen alojera, etab.) sustatzea.

Hirian merkantzien banaketa kudeatzeko sistema aurreratuak praktikan ipintzea.

- **PLANGINTZA URBANISTIKOA**

Etorkizuneko jardueretan, Itun honetan definitutako mugikortasun-ereduaren premietara egokituriko espazio publikoaren egituraketa aurreikustea.

Lekualdatze desberdinen arteko elkargarritasuna lagunduko duen hiri-bilbea diseinatzea.

Ibilgailu pribatuen bitarteko mugikortasuna murrizt dadin saiatzeko, dentsitate handiko eta erabilera anitzeko (egoitza, merkataritza, zerbitzuak, kutsatzen ez duen industrialak) urbanizazio modua sustatzea.

Oinezko, bizikletazko eta motorrik gabeko moduen mugikortasunaren eta garraio publiko edo kolektiboaren bitartez egiten diren lekualdaketen lehentasuna bermatuko duten urbanizazio plan eta proiektuak eratu eta onestea, azpiegiturak, aparkalekuak eta sekzio eta sareen diseinua barne. Esate baterako, urbanizazio berrietan busentzako karrilak aurreikustea.

Garraio publikoaren sarera, urbanizaturiko area berrietan gainerako tokien pareko segurtasun- eta kalitate-baldintzetan iritsiko dela bermatzea. Zirkulazio-ardatz nagusietako galtzadan autobusentzako karrila antolatzeke espazioa aurreikustea. Era berean, bide-segurtasuna hobetzeko oinarritzko irizpideak aplikatzea, oinezkoen eta ziklisten babes eta segurtasuna, batik bat, bermatuz. Urbanizatu beharreko areetan, ororentzat irisgarritasuna oinarritzko irizpide gisara aplikatzea.

Urbanizaturiko area berrietan, galtzadatik kanpo, aparkamendu-premiak asetzeko beharrezkoak liratekeen bertako egoiliarrentzako eta errotazioko aparkaleku plazak aurreikusi eta gordetzea.

- **INFORMAZIOA,PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA**

Itunaren helburu eta printzipioak jarraituz gure mugikortasun-eredutik jasangarriagoa izango den beste eredu baterako trantsizioa baloratzeko sortuko diren adierazleen eboluzioaz informazioa ematea herritarrei.

Garraibide denetan dauden mugikortasun-aukeren gainean hiritarrari emaniko informazioa hedabideen bitartez areagotzea.

Hiritarren artean komunikazio kanpainak egitea,

- Ibilgailua gidatu eta aparkatzean gizatasuna sustatzeko.
- Bide segurtasuna hobetzeko.
- Garraibide iraunkorragoen erabilera sustatzeko:
 - Oinezko lekualdaketa
 - Eguneroko lekualdaketatik bizikleta, patinak edo motorrik gabeko beste hainbat modu baliatzea
 - Garraio kolektiboa erabiltzea

Itun honetan ezarritako printzipio eta helburuez komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea.

- Eskolan bide-hezkuntzako ikastaroak sustatzea.
- Gidatze seguru eta ekologikoko ikastaroak egitea.

Enpresa eta establezimendu komertzialek, bertako langile eta bezeroek toki horietara iristeko ibilgailu pribatuan ibili ordez, garraio publikoa balia dezaten sustatzea, aparkatzeko txartelak eman partez garraio kolektiboa erabiltzeko txartelak entregatuz.

Trafikoa eta garraioa gai konplexuak dira eta, halakotzat, hainbat frontetan lana egitea eskatzen dute eta, beste aldetik, beren sustraiak alor kultural, sozial eta ekonomikoetan dautzanez, epe laburrerako soluzio partzialik ez dute onartzen. Horregatik, hurrengoak adostu behar dira:

- Mugikortasuna, ahalik eta abiadura handienez denbora laburrenean pertsonak eta merkantziak garraiatzea (mugimendu horien markotzat jotzen den hiri jakin batetik) den arazo gisa jotzen duen ikuspegi zatikatzailea gaindituko duen itun soziala; kontuan izanik, gainera, hirien “automobilizazioaren” hastapenetik ikuspegi hori nagusi izan dela.
- Epe ertain eta luzean baizik arrakastatsuak ezin izan daitezkeen ibilbide luzeko politika adostuak ezartzeko aukera emango duen hitzarmen tekniko, sozial eta politikoa.

Mugikortasun-arazoaren konponbideari dagokionez, hiritarren rola ere aldatu egingo da, bai alderdi kulturaletan, baita hiritarrari eguneroko mugikortasunean eskatzen zaizkion jokabidearekiko erantzukizun eta koherentziari dagokionez ere.

Itun sozialak, bere aldetik, interesa duten eragileek ez ezik gizarte osoak ere ahalik eta modu zabalenean parte har dezaten bultzatzea agintzen du, mugikortasun-eredu berriaren funtsezko gaitan. Gure udalerrian mugikortasunaren dinamika ulertzeko ikuspegi guztien arteko konpromiso batera iritsi beharra dago, espazio publikoan erabileren banaketa defini dezagun.

Udalak, bere aldetik, Itun honetako proposamenak garatu ahal izan daitezkeen giza eta diru baliabideak ezarri behar ditu; bestetik, gai honen gaineko egungo eskuduntzak koordinatu eta osatuko dituen egitura instituzionala eratu behar du, ikuspegi berriak agintzen duen politika eta plangintzen aldaketa gorpuztuko dela bermatzeko.

Mugikortasunaren Itunak, era berean, itundutako jarduerak segitzeko mekanismoez hornitu nahi du bere burua, hartutako konpromisoak zien mailatan betetzen ari diren aldian-aldian ebaluatu ahal izan dadin.

Itun honetan adierazitako helburuak beteko direla bermatzeko eta proposaturiko jardueren segimendua egin ahal izateko, Itun honetan definitutako printzipio, helburu eta neurriak betetzeko Mugikortasun Iraunkorraren Planean zehazten diren adierazleen segimendua egiteko konpromisoa hartzen dugu agiria sinatzen dugunok.